

Agian
Zaharregia txikiegia
agian pantaila handira
iritsi da

▣ Ezpalak
▣ Argitalpenak

▣ Denbora-pasak
▣ Makina bat kontu

Ihesi
Erdi Aroko
Portugalete

ARGIA

erdiko kainera

kultura eta aisia

Artea azokan



Nere Lujanbio

Arcok, Madrilgo arte garaikideko azokak, baditu berezi egiten duten ezaugarri batzuk: azoka izan arren eta, beraz, helburu nagusia salerosketa izan arren, hori ez da inolaz ere helburu bakarra. Arco gertakari soziala ere bada, jende andana (arte munduko adituak, arte zaleak, politikariak, ikasleak, interes berezirik izan ez arren kuriositateak jota inguratzen direnak, eta abar) biltzen duen ikuskizuna. Zenbakitan, ekitaldi gutxi iristen dira Arcoren kopuruetera: 7 milioi euroko aurrekontua, guztira 230.000 bisitari inguru azokak iraun duen 6 egunetan, 29 estatutatik inguratutako 271 galeria, 3.000 artista ingururen artelanak eta salerosketetan mugitutako dirua... auskalo! Antolatzaileen hitzetan, sekula baino gehiago.

Begiraden tarteti



OTSAILAREN 14tik 19ra ospatu zen Madrilgo erakusketa azokan ARCO, arte garaikideko azoka. Aurten 26. urtea zuen eta, mende laurden beteta, berrikuntza batzuk ere bazekartzan berekin, besteak beste, zuzendari berria: Lourdes Fernandez donostiarra. Antza, nahiko ongi ekin dio lan berriari eta behin aurtengo lana bukatuta datorren urteko azokan pentsatzen ari omen da jada.

Urtero bezala, otsailaren erdi aldera, arte garaikideak komunikabideetan lehen mailako lekua hartu zuen aurtengoan ere. Eguneroko bizitzan ia bazterrekoa izan ohi dena, guztion intereseko bihurtu zen bat batean. Non eta azoka batean. Duela 26 urte, Espainian bildumazaletasuna bultzatzeko eta arte garaikidearen egoera eta merkatua "normalizatzeko" asmoz sortu zen egun hain entzutetsua den azoka. Helburuen artean, arte garaikidea gizarteratzea ere bazegoen noski, elitista bezala ikusten zen hura "herriarengana" hurbiltzea, asteburu batez besterik ez bazen ere. Egun, azokak azoka izaten jarraitzen du, negozio gune beraz, eta era berean, aste-

Azokan stand bat
izateak 24.000 euro
inguruko kostua du
eta beraz,
derrigorrezkoa dute
galeriek salmenta
onak izatea, gastu
horiei aurre egiteko
besterik ez bada ere

k saldu eta erosi

buru batez, “herritarrak” arte garaikidera hurbiltzeko aitzakia ere bai.

Beraz, merkatala gunea den heinean, protagonista nagusiak saltzaileak, erosleak eta produktua bera dira, galeristak, bildumatzaleak eta artelanak, alegia. Gainontzeko guttia, bertaratzen diren milaka eta milaka ikusleak, prentsan duen oihartzuna, artelanak aurkezteko ingurutzuna, bertaratzen diren artistak... horiek guztiak, azokak beharrezko izan arren, apaindura besterik ez dira, ez dute batere balio negoziaririk egon ezean.

Denetarik duen bitxi-kutxa

Baina hitz egin dezagun arteaz. Ia denetarik topa liteke Arco bezalako azoka batean, nahiz eta oraindik ere nagusitasuna pinturarena den. Eskulturak eta argazkiak, azken honek gero eta gehiago, leku garrantzitsua dute eta baita, nahiz eta maila txikiagoan, instalazioek, bideoak edo baliabide elektronikoen sortutako

Hainbesteko pilaketa dagoen lekuan artelanen kalitateari buruz hitz egitea nahiko zaila da denetarik nahasten baita bertan

lanek ere. Duela bi urtetatik hona, leku berezia eskaintzen zaie azken horiei, *The Black Box* (Kutxa Beltza) izeneko hain zuzen ere. Azokako orma zurietan lekuri aurkitu ezin zuten ikus-entzuzko proiektu berritzaileenak biltzea du kutxa beltzak helburu.

Artistak ere askotarikoak dira, Picasso edo Bacon bezalako *munstro*etatik hasi eta arte munduan sartu berri diren artista gazteetaraino.

“Adituek” diotenez, aurtengo azokak maila ona eman du artelanen kalitateari dagokionez. Baina hainbesteko pilaketa dagoen lekuan artelanen kalitateari buruz hitz egitea nahiko zaila da, denetarik nahasten baita bertan. Dena den, aipatu behar da, pixkanaka nazioarteko galeria entzuztetsu gero eta gehiago hurbiltzen direla Madrilan, eta horrek artelanen kalitatean ez ezik, azokaren beraren ospean ere eragina duela. Gainera aurtengo azoka, aurreko urteetan bezala, “eskanda-

Korea, kitsch distiratsua



Urtero herrialde bat gonbidatu berezi izendatzen dute Arco azokan, bertako galeriak eta artistak ezagutarazi eta hedapen zabalagoa emateko. Aurtengoa Hego Korearen txanda izan da. Arte munduan ohiko den bezala, orain arte Europako edo Amerikako herrialdeei eskaini izan zaie gonbidatu izateko ohorea, eta aurtengo izan da Asiako herrialde bat hautatua lehenengoz. Koreanek aurkeztutako artelanen kalitatearen gainean askotariko iritziak plazaratu ziren azokak iraun zuen egunetan: interesgarria, berritzailea, naif-a, edukirik gabea, freskoa, sinplea... Baina iritziak iritzi, arte korearrak izandako arrakasta ezin uka liteke. Azoka amaitu bezain pronto antolakuntzak adierazi zuten, Koreatik joandako galeriek bertara eramandako artelanen ia %100 saldu zuten.

Zalaparta eta eskandalo handirik gabeko azoka batean, zenbait bitxikeria behintzat erakutsi dituzte koreanek. Orokorrean lan koloretsuak, jostalari edo umoretsuak asko, material distiratsuekin eginak eta kitsch xamarak, baina era berean, mendebaldeko ezberdina den estetika eta iruditegi baten berri eman digutenak.



Erromesaldian Arcora

Ez dago esan beharrik, mota honetako ekitaldi bat ez dela inondik ere artea ikusi edo arteaz gozatzeko lekurik aproposena. Batetik, handiegia delako eta gauza ezberdin gehiegi daudelako aukeran. Bestetik, azoka bat izaki eta ez erakusketa, artelanak testuingururik gabe aurkezten direlako, bata bestearen jarraian elkarren artean inolako loturarik gabe, eta azkenik –nahiz eta arrazoi gehiago ere egongo diren, noski– izugarritzko jendetza batzen delako bertan eta buru eta gorputz artetik, eta inguruko argazki kameraren flashek itsututa, zaila gertatzen delako ezerekin gozatzea.


Arcoko bisitaria gainditu egiten du bertako artelan pilaketak eta aniztasunak, baina arteaz haragoko galdera interesgarriak ere etortzen dira gogora, halabeharrez. Arte garaikideko museoek eta zer esanik ez galeriek, doan izanda ere, ia inor erakartzen ez badute, askok arte garaikidea elitista, ulergaitza eta are adar-jotzea dela badiote, nola uler liteke Arcok hainbesteko jendetza batzea, are gehiago, sarrerak 30 euro balio duela kontuan hartuta? Artearekiko jakin-minak bultzatuta mugitzen al da jende uholde hori? Asko bai, baina ez guztiak, ezta gutxiago ere! Komunikabideek, azokaren antolakuntzak bultzatuta, ikuskizun mediatiko bilakatu dute Arco, ia astebetetz lehen mailako berria da, egunkari, irrati eta telebistako programa askotan, eta jendeak zer den jakin nahi du, bertan egon nahi du, egon egin behar delako.



lua” sortu duen lanik izan eta horrek azokari mesede egin dio, nahiz eta arrazoi horregatik beragatik modu isilagoan iragan den.

Euskal Herriko zenbait galeriek eta artistek ere izan zuten, ohi bezala, bere tokia Arcon. Donostiako Altxerri galeria, Iruñeko Moises Perez de Albeniz, Bilboko Windsor Kulturgingintza edo Vanguardia eta Gasteizko Traxecto galeriak izan ziren bertan, besteak beste. Salmentekin batzuk gustura itzuli ziren etxera, beste batzuk ez hainbeste; balorazioetan ere askotariko iritziak izaten dira. Kontuan izan behar da, azokan *stand* bat izateak 24.000 euro inguruko kostua duela eta beraz, derrigorrezkoa dutela galeriek salmenta onak izatea gastu

horiei aurre egiteko, besterik ez bada ere. Dena den, galerientzat saltzea ez da helburu bakarra. Bertan egote hutsa garrantzitsua da, izena edo ospea ematen die galeriei,



kontaktuak eta etorkizuneko negozioak ahalbidetzeaz gain. Kontuan izan behar da Euskal Herrian arte bildumazaletasuna ez dela apenas existitzen eta galeriarik arrakastatsuenak ere ez duela urtebetean Arcok irauten duen 6 egunetan izaten duen bisitari kopurua izaten.

Berdin gertatzen da artistekin ere. Arco artisten erakusleho paregabea da, bertan dagoenak ez dagoenak baino askoz ere aukera gehiago izango ditu bere lana saldu edo ezagutarazteko. Bildumatzaile pribatuek gain, museo eta fundazioetako bilduma arduradunak ere bertan izaten dira, askotan diru kopuru bat kosta ahala kosta xahutzeko helburuarekin, eta beraz, batez ere artista gazte edo hasi berrien ibilbidean jauzi garrantzitsua izan liteke. Nahiz eta ez den beti hala gertatzen. n

BOS
Bilbao
Orkestra Sinfonikoa

**06
07**

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria Titular eta Artistikoa / Director Titular y Artístico, **Juanjo Mena**

MARTXOA • MARZO 8 - 9

Leila Josefowicz interpreta Beethoven

R. Schumann: Obertura "Manfred"
L. de Pablo: Casi un espejo
L. van Beethoven: Concierto para violín y orquesta en Re M, op. 61

Leila Josefowicz, biolina/violín

Juanjo Mena, zuzendaria/director

Leila Josefowicz

Informazioa / Información

ordutegia / horario
20:00
T. 94 40 35 205
www.bilbaorkestra.com

lekua / lugar
Palacio
Euskalduna
Jauregia

prezioak / precios
24,00 € 12,00 €
gazteak / jóvenes (-27)
7,50 € 4,00 €

Babeslea / Patrocinador

BBKren Gorria baldin baduzu, sarerak 2€ eta abonak 30€

BBK26

Si tienes la Roja de BBK, entradas 2€ y abonos 30€